


Goibekokale

Elgetaka aldirikari 33zk.

F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.



Urte Zerbaki



Goibekokale
ELGETAKO ALDIRIARI
LEHENENGO
ORTEURRENA



Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

EAJ-ko otsaileko kartari erantzuna

Argi dago ez duzuela auke-
rarik galtzen, hauteskunder-
tarako propaganda egiteko,
edozer eta edozeinen gaine-
tik.

Zuen idatzian, zo-
rion hipokrita batez gain,
hor aritu zarete honetaz eta
hartaz eta ez duzue ezer ar-
gitu.

Ezin dizuet onartu
nere idatzia zuek nahi izan
duzuen bezala interpreta-
tzea, eta irakurri duten elge-
tarrek nere esanak zuen
erruz, agian gaizki ulertzea.
Zuen probetxurako manipu-
latu egiten duzue eta hau ni-
retzat onartzina da.

Ordezkarri politiko
zaretan aldetik, zuek ez ditu-
zue berdin tratatzen elgeta-
rrak. Entzun, ikusi eta ikutu
egin daiteke. Guk bizi izan
dugu eta oraindik ere jasaten
ari gara.

Zuek badakizue ne-
re anaia 2000 ptako isuna
ordaintzera kondenatu zute-
la, inongo frogarik gabe. Pa-
txi Basauri alkate izanik le-
gearen aurrean sinesgarrita-
sun handiagoa omen du, he-
rritar arruntaren aurrean.

Iturri onetik daki-
gu, Alkate Jaunak, nere
anaia gogorrago zigortua
izatea lortu nahi zuela. Esan
zigutenaren arabera harritze-
ko ekintza. Badirudi etxeko-
ak pasa duguna epaiketekin,
deklarazioekin, abokatue-
kin... gutxi zela.

Argi dago inoiz ez
garela ulertuko, horregaitik
agurtu egiten naiz betirako.
Denborari utziko diogu gure
etxera gauzak onera etorriko
diren esperantza. Bitartean
nire bizitza egingo dut eta
ahal dudan bitartean kasurik
ez egin, zuengandik urrun
hobeto sentitzen naiz eta.

Aukera hau aprobe-
txatu nahi nuke borondate

oneko elgetarrak agurtzeko,
nere bizitzako parte moduan
bihotzean daramatzadalako.

Adeitasunez.

Garbiñe Etxebarria

Asentziko 15.000 duro fal- tan, "zepiloko" 75.000 pta

Hainbat baserri dira Asen-
tzioko ermitaren zaindari:
Olatza, Urrejalei, Zabale,
Albistei, Miraballes, Jariko-
txo...

Zaindariak beraien
egin beharrak dituzte eta ho-
rietako bat diru zaintza da.

Borondate oneko jendeak
"zepiloko" utzitako diruare-
kin eta baserriarrek ipintzen
dutenarekin Asentzioko er-
mita zutik mantentzen da.
Azkenengo kontuen arabera
75.000 pta inguru zeuden
kartilan. Orain berriz diru
hori "desagertu" egin da. Ez
da aparteko obrarik egin
orain arte, ermitak zuritu di-

ra baina hau egin zuenak de-
balde egin zuen, beraz zerta-
rako erabili da dirua?

Ez dago beraz fak-
turarik gastua justifikatuko
duenik.

Kartila pertsona ba-
tek izan du azken bi urtetan,
Jarikotxoko Leandro hil ze-
netik. Baserriarrek badakite
nork hartu duen eta onarte-
zina dela diote, "zepiloko"
dirua justifikaziorik gabe
hartzea. Ez zaitez enteratu
gabe gelditu eta galdetu ba-
serritar hauei. Denek daki-
te, baita dirua hartu duenak
ere.

Batzun narruakin
sahagixa be egiñ leike!

Baserritar baten ilobak

Hirugarren urtia zuekin

Hiru zenbaki magikoa da. Ez da kasua-
litatea 33. alea izatea irakurgai duzuna.

Hiru ziren lehen asteko egu-
nak (astelehena, astearte eta asteazke-
na), hiru txerritxoak, hiru ahozko eus-
kal baladetako ekintzak, pasarteak,
personajeak... Euskadi irratiari hiritan
hiru, TVE-1eko progamarik ezagunena
"Un Dos Tres" Eta Goibekokalek ere
hiru urte: Bat, bi eta hiru.

Batzutan hobeto bestetan
baino, izan ere, hiru urtetan denetik
gertatu zaigu.

Urteok onerako direlakoan
oraingo alean aldaketa batzuk nabaritu-
ko dituzue: kolore aldaketa, formato
aldaketa, itxura berria eta hurrengo
aleetarako baita atal berriak ere.
Proiektuak ez dira falta eta gogoia ere
ez. Lagun berriak inguratu zaizkigu
lanera, publizistak, erredaktoreak,
kolaboratzaileak eta baita maskota
berria ere. Ez gara ahazten utzi behar
izan dutenez ere.

Etorri berriok eta lehendik
geundenok ere gurekin batera jarraitze-
ra animatzen zaituztegu.

Goibekokalekook hilaren 3an
afaritxo bat egingo dugu Iñaki jatetxe-

an eta lekua izango duzu. Etorri nahi
izanez gero behintzat deitu gure telefo-
nora eta listo!

Besterik ez, ea beste hiru,
hogeita hamairu edo hirurehun eta
hogeita hamahiru egin arte zuekin
batera egiten dugun aurrera.

Erredakzio kontseilua.

AENOR


ER

Empresa
Registrada

ER-714/296

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61

“EZBERDIN BIZI, EZBERDIN PENTSATU ETA EZBERDIN MAITE DUTENENTZAT”



itzak indarra badu, ahotsak zer esanik ez. Urtero bezala, aldizkariak urteak egiten dituenean, prentsan edo telebistan lanean ari den kazetari bati bere laguntza eskatzen dio. Oraingoan irriti esatari bat aukeratu genuen, Euskadi Gazteko Dani. Ez dakigu bere abizena, ez dugu bere aurpegia ezagutzen, bakarrik bere ahotsa eta beti bere bihotza. Ez da irriti esatari arrunta, horregatik, erosten saiatu ginenean ez genuen lortu. San Blas eder bat bidali genion, baina astebetere buruan bere deia, “begira, nik, idazteko...zatozte zuek eta hitzgingo dugu”.


Elkarrizketa honetan, ezingo dugu bere ahotsa entzun eta hitz hauek torpe xamarrak dira sentimenduak adierazteko, beraz aurkeztu egingo dizuet eta ondoren zuek irratia piztu beharko duzue, arratsaldeko seietan, Euskadi Gaztean. Egin duzu, bai, ba orain entzun.

“Orain dela hiru urte edo aurkitu nuen nere bizitzako helburua. Guztiok pasatzen ditugu krisialdiak eta bidea aurkitzen dugunean dena lasaigo ikusten da. Niri asko lagundu zidan pertsona arrunta nintzela eta era berean berezia nintzela ikusteak. Sinplea nintzela beste edozein bezala, baina oso aberatsa”. Lagunen oso lagun da eta ostiraleko saioan beti gogoratzen digu zerbait “zoaz lagunarengana, edozein dela aitzakia, ibiltzen ez den bidean **sasia** hasten baita”.

Irratia, bere burua aberasten duen bide bezala definitzen du. 11-12 urteko bidaia honetan lagun asko egin ditu eta beraiekin hitz egiteak, gehiago ezagutzeko aukera izateak, aberastasun ikaragarria ekarri dio. Bere elkarrizketak inoiz ez dira arruntak, hobe esanda, jende arrunta eramaten du, musikariak, mendizaleak, edariarekin arazoak dituzten gazteak, bulimikoak, idazleak... Bizipenak baino harantzago joateak ematen dio bere programari aberastasuna, hitzen bidez bihotzak irekitzea lortzen du eta lotan daudenak ira-tzar-tzea.

Elkarrizketak, jokuak, tarota, sexualitateari buruzko saioa, elkarrizketak... Hau ikusita programa arrunta ere eman dezake. Baina programa arruntek, pertsona arruntek, ez dute 12 urteko ibilbidea jorratzen ez eta hainbeste lagun egiten. Elgetan entzule asko ditu eta denak agurtzea ez ahazteko ere esan zigun, eta hauxe ere idaztea “Aitor Elkoro, aupa txapeldun”. Zuk esan eta guk idatzi.

Dani (Euskadi Gazteko esataria)



GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.
Zuzendaria: Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igar eta Gorka Arizmendiarrrieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar.
Maketazioa: Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatzu.
Publizistak: Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).
Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Eusko Jauriaritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Elgetako Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honen
argitaratzailea

Ekintzaz beteta, Gaztetxearen bigarren urteurrena

Gaztetxearen urteurrena ospatzeko ekintza ugari antolatu zituen Gazte Asanbladak. Ekintzak mota guztietakoak izan dira. Partaidetza handia izan da, adin guztietako jendea batu dute Gaztetxeok.



Eguenean, zinea gimnasioan. Okupazioari buruzko bideo batek eta "Secretos del corazón" filmek ikustera jende ugari bildu zen bai Gaztetxe eta bai Gimnasioan.



Zapatua, juerga eguna.

Zapatua zen urteurren honetako egunik garrantzitsuenak. Trikitilariak alaitutako poteoak eguerdi aldea alaitu zuten. Bazkaltzen ere jende ugari egon zen, bazkalosteko giroari txiste kontalariak eman zion jarraipena. Iluntzeko aerobic saioan gimnasiotik aspaldi pasa ez den jende ugari aritu zen. Gaua Trikitixa Kontrairo taldekoek alaitu zuten. Dantza eta dantza artean bukatu zen gaztetxearen bigarren urteurren festa. Orain Gazte Asanbladakoak, Asentzio egunaren antolatetarekin dihardute buru-belarri.

Eguaztenian, futbito istriputsua.

Urteurrena Futbito txapelketarekin hasi zen, txapelketa honetan zazpi taldek hartu zuten parte. Finala bertan behera utzi zen, Txapela taldeko Iñaki Oiangurennek min hartu ondoren.



Barikua, Gaztetxea gaztetxoentzako.

Barikurako haur eta gaztetxoentzat antolatuta zegoen eguna. Goiz goizetik Intxorta igotzeari ekin zioten. Haur guztiek igo zuten goraino. Asentziara joan ziren Gaztetxe aurreko lautadan zeukaten bazkari goxoa jatera bueltatu baino lehen. Bazkal ostean futbol hiru txapelketan eta jolasetan ibili ziren. Iluntzean gimnasioan zeukaten filminarekin bukatu zen herriko gaztetxoentzako eguna.

Egun honetan Goibekokalek hiru urte betetzen zituela eta Niko Etxarten kontzertua egon zen gimnasioan.



GRUPO
IFA Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel:
76 80 98.

ALDI

Andoni Bolinaga
METALAK

FS718

Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Goibekokalek bete ditu hiru urte

Goibekokale hilabetekarian gabiltzanok zorioneko gaude. Badaramatzagu hiru urte irakurleoi aldizkaria etxeraino eramaten. Urteurrena ospatzeko Niko Etxart eta Dominique Etxarten kontzertua izan gaenuen gimasioan. Bildu zen jendea pozik geratu zen ikusitako emanaldiarekin. Kontzertuan Zuberoako abesti ugari izan ziren entzungai. Kontzertuari bukaera beste bi taldekidekin eman zion Nikok, soinu rockeroagoekin.

Urteurrena ospatzeko afari ederra egingo dugu hilaren 3an.



Elgetako Parrokiak ospakizun ugari Aste Santurako

Aste Santua dela eta zenbait hitzaldi eman dira Aita Elustondo frantzizkotarraren eskutik. Gaia Garizuma izan da. Aste Santuan urteroko mezez gain prozesioa egiteko asmoa daukate parrokiakoek, horrela lehenagoko ohiturak berreskuratzeko ahalegina egingo da.

Eguazten Santua

Aste Santuko ospakizunak apirilaren 8an hasiko dira. Eguazten Santuan 4retan, sarrera ospakizuna umeeentzat.

Eguen Santua

Apirilaren 9an, Goizeko 9etan, goiz otoitza izango da. Arratsaldeko 6:30etan, Azken Afari Ospakizuna. Eta iluntzeko 9, 30etan Ordu Santua izango da kaperan.

Bariku Santua.

Apirilaren 10ean, goizeko 8:30etan Gurutze bidea izango da. Arratsal-

deko 7:00etan, Jesusen Heriotzaren Ospakizuna. Ondoren prozesioa egitekoasmoa dago.

Prozesioan elizan dauden irudiak aterako dira. Nazarenoa, Ama Doloretakoa eta San Juanen irudiak ia gertu daude ateratzeko. Nazarenoa Jalotzak egingo da. Hilobian ateratzeko nahia ere badaukate, hala ere euskarriak eta presta-tzen ari dira pisu handia dauka eta. Lehen bi prozesio izaten ziren. Aurten irudi guztiak batera aterako dira.

Zapatu Santua.

9:00etan goiz otoitza izango da. Gaueko 10:00etan, Pazko Gaubela. Ondoren jaigiroko alkarraldia ospatuko da sakristian.

Pazko domeka.

12:00etan, meza nagusia. Egun honetan meza bakarra izango da.

Elkororen Zaletuen batzordekideak hautatuta
Apirilaren 26an Elkororen zaletuek bilera izan zuten. Lehendakari Fernando Oianguren aukeratu zuten. Berarekin batera Jose Antonio Irazabal, Juan Carlos Errasti, David Peñalver eta Mikel Mandaluniz aukeratu zituzten. Elkororen Zaletuen bilerara 78 kideak zeuden gonbidatuta. Zaletuen kide izateko Patxi Tabernan eman dezakezu izena. Bileran Elkororen partiduetarako autobusak antolatzen direnean kide direnei laguntza emateko pentsatu zen; kamisetak ateratzeko asmoa ere badute.

Apirilak 15ean kantautore kubatarra Gaztetxean

Polito Ibañez kantautore izango da entzungai Gaztetxean. Kantautore Kubatar honek Pablo Milanesen musikoekin grabatu du bere diskoa. Nueva Trobaren azken generazioko kantautorea apirilaren 15ean gaueko 10:30etan.

Jaietako komisia hasi da azkenean Feria Nagusia antolatzen

Jaietako komisia ekin dio Feria Nagusia antolatzeari. Ana Sousa, dinamizatzaile kulturala bajan egoteak, Juan Ramon Irazabalek jaiak antolatzeko ardura hartzea ekarri du. Aurreko astean egin zen lehenengo bilera. Denboraz justu dabiltzala garbi daukate komisiok eta horregatik musika taldeak lotu dituzte dagoeneko.

Plazara etorriko diren taldeen artean lotuta daude Azkonabieta eta Jokin, Kiñu, Incansables txaranga, Jainaga eta Narbaiza eta ia lotuta Alaitz eta Maider.

IBAIBA-RRIAGA
GARRAIOAK
Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

BILTEGI DENDA
Zugandik gertu behar dugun beste
Salbador 24 Tel: 768206

OSTATU
Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA
Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Zabaletan Bolajokua

Bigarren urtez jaso du Zabaletako bolatokiak txapelketako ekitaldi bat, aurrekoan bezala arrakasta osoz. Oraingo ekitaldior bertan eman zaie hasiera eta Euskadiko Txapelketarako balio duten tiradak dira.

Orain dela urte bete zalantzan jarri zen bolatokia egiteko Udalaren diru laguntzarik edukiko ote zen. Azkenik haiek ere heldu ziren eta bertakoen lan bikainaren ondorioz inguruetakoa bolatoki politena dugu orain.

Ezkontza

Aitor Zabaleta sanjuandarra eta Marife Muñoz angiozartarra pasa den zapatuan ezkondu ziren Angiozarko parrokan. Aurreko egunetik hasi zen jaia eta makina bat etxafliro bota zituzten solterotza despedituz. Egunean bertan ere ez ziren ixildu tiro hotsak.

Kotxe dotore baten hurbildu zen Marife elizara bere etxetik, ordurako han zeukalarik senargaia itxoitzen, hau ere beste biplaza baten etorria zen, biak ere kotxeen mundu arekin duten lotura argi eta garbi utziz. Elizkizun ostean ezkonberriak eta ia 300 gonbidatuak Gatzagainekeo Marisanean bapo bazkaldu eta jaiarekin jarraitu zuten. Eguerdia parte osoan Angiozarko tabernetan edonor egon zen nahi zuenera gonbidatuta padrinoaren partez.

Aste Santurako elizkizunen ordutegia

Eguen Santua, apirilak 9
Arratsaldeko 8:00etan, Azken Afariko Ospakizuna
Gabeko 9,30etan, Ordu Santua.
Bariku Santua, apirilak 10
Goizeko 10:00etan: Gurutz Bidea
Arratsaldeko 5:00etan: Jesusen Heriotza
Ospakizuna
Zapatu Santua, apirilak 11
Arratsaldeko 8:00etan: Pazko Gaubela.
Pazkoa Domeka, apirilak 12
Goizeko 10:30etan: Meza Nagusia.

Elizamendi

Iaz bezala Elizamendiko Ama Birjinaren jaia kalean ospatu beharra egon da, eliza honen egoera eskaxa dela eta. Ospakizuna ez da aldatu bere oinarrian: Ume eta amen bedeinkazioa meza ostean abadeak eskuak banan-banan buru gainean jarriz, baina gauza bakoitzak bere tokia dauka eta Elixamendira lehenbailehen itzultzea denen gogokoa izango litzateke.

Bere garaian tradizio handiko jaia izandakoa da, Deba Garaia zein Bizkaiko beste herrietatik ere jende ugari hurbiltzen baitzen Elizamendira Ama Birjina egunean ume eta emakumeen bedeinkaziora eta erromeria. Gerra denboran, alboan (orain frontoia dagoen lekuan) zegoen zaintzailearen etxea birrinduta gelditu zen eta elizak berak ere nahiko kalte handiak izan zituen. Hor bukatu ziren garai bateko eskaintza eta etxe bakoitzetik oiloa erregalo eramateak. Gero modu apalagoan be-

ti ospatu izan da jaia erromeriarekin, azken hamar urteotan eliza aurre guztiak jasan duen mugimenduak bertako segurtasuna baldintzatu duten arte.

Iaz Koruko Aizarna Kultura Diputatuaren bisita izan genuen eta zerbait egiteko borondatea ere azaldu zuen, jakinik gainera duela hamaika urte aurkeztu zela Diputazioan Elixamendi konpontzeko proiektua. Bitarte horretan Bergarako Udalak ere zenbait partida izendatu izan ditu lan hau egiteko, baina Diputazioaren laguntza hartzea kondizioa izanik dena bertan behera gelditu da.

Seguruenik beste bideren batzu urratu beharra egongo da konponbidea aurkitzeko, imaginazio apur batekin finantziario bideak bilatu eta atalka besterik ez bada konpontzen joan. Beste leku batzuetan lortu badute hemen zergatik ez!



Mainddao auzoa ikusteko aukera izango dute Elizamendira joaten direnak

Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

Antonio Rodríguez Da Cruz

IAPAM

Hoditeria

Galdaragintza arina

Soldadura homologatuak

Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

Egixa esan, ez zan hain zailla erretratuko pareja zein zan asmatzia. Bai, Maixa eta Ixiar dira. Erretratua Gaztetxian jo zebenekua da ta seguru berriz ikusteko aukeria be euko dogula denpora luzian itxoitzen egoteka.



Lehiakete

Taldian bost lagun dira ta Euskal Herri osua aldenik alde pasautakua dira. Kontzertun baten edo egondakua da itxuria gurera kartatxua bialdu dabena be. Ane Bilbaok argi asko ekixen zeintzuk ziran. Bera fango da ba afaltzera gura daben lagunakin.

Oinguan berriz gure erretratu zahar bat ipintzia pentsau dogu. Ez dago noizkua dan esan biharrik, asmau ezkerro ze toki dan nahikua izango da afaltzera fateko. ANIMO!!!!!!



Zelan ospatzen dozu Aste Santua?




Kristina Gabibondo
Bihargiña (31 urte)

Ez dot ospatzen Aste Santua kristau moduan. Gehixeneta horrek egunok kanpora fateko aprobeztatzen ditud. Txikittan faten nitzan elizara hor sasoian gurasuek bialduta. Ondo pentsatzen jata tradiziñuak berreskuratzia, gaiñera horrek jentia ekarri leike herrira.


Aste Santua dan moduan ospatzen dot, elizara faten naiz. Ez dakat kanpora fateko ohitturaik, tradiziñua jarraitzen dot. Ondo pentsatzen jata ohittura zaharrak berriz be geureganatzia, prosesiñuak egiñ ta santuak berriz etaratzia ta...

Maritxu Jribekanos
Eixeakoandria (55 urte)



M^o Jesus Leta
Eixeakoandria (54 urte)

Aste Santua kristau moduan ospatzen dot ahal doten neurrixan. Ondo pentsatzen jata tradiziñua berreskuratzia, prosesiñuak egiñ ta holakuak, baiña horretarako santua eusteko besteko indarra dakan jentia falta egitten dau.



Mikel Arentzabal
Jubilaua (76 urte)

Aste Santua elixara faten ospatzen dot ohittura zaharrak agintzen daben moduan. Ondo pen-tsatzen jata lehengo ohitturak berreskuratzia, santuak etaratzia ta holakuak.


Lehenau gehixau faten nitzan baiña, oiñ be juaten naiz. Ondo pentsatzen jata tradiziñua berreskuratzia horrek beste bizitasun bat emongo dotzalako herrixai. Ez dakat kanpora fateko ohitturaik.

Luis Alizuaran
Bihargiña (62 urte)



Gehixeneta Aste Santua kanpora fateko aprobeztatzen dot. Ez dakat mezetara fateko ohitturaik, gehixeneta kanpora fateko aukeria badago, fan egitten naiz.

Karlos Fernández
Bihargiña (52 urte)



ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETIA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador.26. Tel: 768190

Iragarri zaitez

Tel:78.90.85
Faxes: 789043

Tel: 76 81 31
M^a Jesus Arrazola

VIVO
Janari
denda

7
L
E
A
P
A
7
N
D
E
G
7
A

M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67

Aries: Botak jazteko sasoia don/dok baiña ez egun guztia kalia ibiltzeko, negua dalako baiño.

.....

Taurus: Egualdixak moduko gora-beherak dakazan/dakazak aspaldian. Eutsi goixai eta segi aurrera!

.....

Geminis: Munduan bizkorregi ibiltzia be ez don/dok ona, hola denporia baiño lehen gelditxuko haiz.

.....

Cancer: Irabazitxak irabazitxa be ez haiz oportetara fango. Hola egiño ditzun/dittuk ameriketak hik...

.....

Leo: Zigarro mutxikiñak be erreko ditzun/dittuk hola jarraitxu ezker. Lasiatxu hadi birikak izorratu baino lehen!

.....

Virgo: Ez doitzun/doitxuk urtiak alperrik egiñ ta esaixon/esaixok esan biharrekua esan bihotzanai, bixkor!

.....

Libra: Oillatokiko oillarra emoten don/dok horrekin gangarorrekin, ordua da ba haixiak tenplatzeko.

.....

Escorpio: Urkiolara hamarbat joan etorri egiñda be ez don/dok hi aguantauko haben inobe topauko.

.....

Sagitarius: Hainbeste ogi jaten jarraitxu ezker sekulako burua eta atziak hasiko jatanaz/jatazak.

.....

Capricornius: Ez dago asko pentsau biharrik ikasle ona haixela ikusteko, baina ezin/ezik uste horrekin bakarrik mundua konponduko donanik/duanik.

.....

Acuarius: Ez hadi basokada bete uretan itto, ez haiz halakua eta! Topauko dotzan/dotzak irtenbidia arazuai.

.....

Piscis: Haixe bolada batek eruateko modukua hago. Badon/badok zeoze pentsatzen hasteko ordua ba!

.....

Jose Agustin Beretxinaga Bihargiña (39 urte)

- Zenbat urte kamioiak? 11urte.
- Zer dozu nahixau, kamioian lana ala gasan lana? Lan moduan, kamioiana nahixau, kaleko asuntuetan arazo gehixau agertzen dira.
- Baserrixan lanik egiñten dozu? Ahal danik ta gutxien baiña, tokatzen da egittia.
- Zenbat ordu sartu dozuz gehixen kamioian egun baten? 20 ordu inguru.
- Nun bizi da hobeto kalia ala basarrixan? Basarrixan.
- Ze animaliak dakazue baserrixan? Behixak ta txahalak.
- Zein da egunak dakan momentuik onena? Afaltzeko ordua. - Ta txarrena? Goizian despertadoriak jaten daben momentua.
- Zein da Elgetan lehenengo konpondu bihar dan bidia? Kanpazarrerako bidia.
- Romantikua zara? Ez.
- Gaztetxian urteurrena dala ta, zer pentsatzen jatzu oiñ arte egiñ



- diran ekintzak? Ondo, funtzionamentu normala dauka beste gazte txetxe batzukin konparauta.
- Zein da mahixan jarritxuan gehixen gustatzen jatzun platu? Buztana.
- Konfesau leiken bizio bat? Biziuak asko, baiña astirik ez daukat praktikatzeko.
- Noiz jaso dozu azkenengo bidar notizia on bat karta baten? Oiñ dala urte asko, mutikotan edo.
- Sekula ibili zara Internetian? Ez.
- Zer pentsatzen jatzu aurtengo eskuz banakako txapelketako aldatetia? Ez dot uste txapelketian mesederako izango danik.
- Erregalau dotzazu sekula loraik andriai? Bai.
- Noiz egiñ dozu negar azkenengo aldiz? Aspaldi, mutikotan edo.
- Titanic ikusi dozu? Ez.
- Zerekin egitten dozu lo? Kantzontzilo hutsian.
- Fango ziñake illargira ahal izan ezker? Bai, gustora fango nitzake.

Horroroskopua

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak
Etxaurreak Komunak

Otzango Behokoa Baserria. Tel: 860156

Goibekokale 33.zk

Sasoian sasoikoa

Udaberriarekin batera heldu da udan jaso beharreko barazkiak landatzeko ordua

Azken garai honetan utzik ikusiko zenituzten orturik gehientsuenak. Gehienez jota porruak edota beste barazkiren bat aurkituko zenuten. Udaberriarekin batera ordea, arbola eta barazkiak landatzeko garaia heldu da. Garai honetan landatzen dira uda partean gure sabelak beteko dituzten hainbat jaki, hala nola, patata, letxuga, baina,

azelga...

Ortuak ematen dituen jakiak ezinbestekoak dira gizakiarentzako. Gizabana-koak lurrari etekina ateratzen ikasi zuenetik ezinbestekoak izan ditugu eguneroko bazkari eta afa-rietan. Jakina da gaur egun ez zaiola garai batean ematen zitzaion garrantzia ematen, askoz errazagoa baita dendara joan eta ber-

Udaberrian landatzen diren barazkiak, hala nola, patata, letxuga etab. uda guztian zehar jasotzeko aukera izaten da

tan erostea ortuak sortarazten duen lan neketsua egitea baino. Horregatik gaur egun ez da Elgetan lurrak eskainitako jakiei

esker bizi irauten duen familia askorik. Familia gehienek ortuak izaten jarraitzen dute baina etxeko beharrak asetzeko lain landatzen dute.



Familia gehienek ortuak izaten jarraitzen dute baina etxeko beharrak asetzeko lain landatzen dute.

Patatak, letxugak...

Seguruenik aipaturiko familia hauetako gehientsuenak garai honetan ekingo diote udan fruitua emango duten landareak ereiteari. Garai honetan landatzen dira, besteak beste, patata lur sail zabalak, kipula, azelgak, azak, berakatzak, letxugak, espinakak etab. Hauek uda guztian zehar jasoko dira. Baba baltzak eta idarrak ere garai honetan landatzen dira.

Udan eta neguan berriz ez da barazki askorik lantzen, nahiz eta zenbaitzuk garai horretan

F . O . R

Kalitate kontrola
Piezei azken ukituak

Tel: 76 80 38

salbador
19
behea

M^A Karmen
Lenzeria

Lentzeria eta
kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.
Tel: 789040

**E
HARATEGIA
A
S
T**

San Roke 6
tel: 768168.

zenbait jaki ereiten badi-
tuzte ere, kondizioak ez
direlako egokienak.

Arbolak ere badu-
te landatuak izateko garai
aproposik. Euskal lurretan
sartzen diren sagarrak,
keixak, okanak, meloko-
toiak, madariak eta beste
zenbait arbolak abendua
eta otsaila bitartean dute
sasoirik aproposena. Ina-
uzketa (podaketa) ere ga-
rai honetan egiten da, ur-
tarrilean eta otsailean. Ar-
bolari punta mozten zaio
horrela fruitu hobea eman
dezan.

Inauzketa egiteaz
gain, sarritan, arbolak

mentatu ere egiten dira,
nahasketaren bidez, fruitu
berriak lortzeko. Nola egi-
ten da mentaketa? Arbo-
laren arrama bat erditik
zaitzen da eta hutsune ho-
rretan beste klase bateko
adarska bat sartu beharra
izaten da, horrela, adar
hortatik irtengo den frui-
tua bi adar klaseen harteko
nahasketa bat izango da.

Ohitura zaharrak

Fedeak ere oso garrantzi
handia du. Urte askotan
zehar gizakiak fedea izan
du euskarri nagusi eta on-
dorioroz askok eta askok
zenbait ohitura mantendu
dituzte denbora luzez. In-



*Ortuak ematen dituen jakiak ezinbestekoak dira gizakiarentza-
ko.*

guru hauetan bedeinkatu-
tako erramuaren ohitura
oso zabaldua egon da. Erramu hau Berpizkunde
Paskuan bedeinkatzen da
eta zoluan ipintzen da ge-
nero ona lortzeko.

Bada beste ohitura
bat ere askok jarraitzen
dutena, ilargiaren egoerari
dagokiona alegia. Ortuan


lan egiten duten askoren
ustez hilbera da ereiteko
garairik aproposena. Beste
batzuk eguraldiari ere ga-
rrantzi handia ematen dio-
te, hala nola, haizeari, eu-
riari, eguzkiari... Garai ba-
koitzean egiten duen egu-
raldiaren arabera uzta mo-
du batekoa edo bestelakoa
izango da.

**Bedeinkatutako erramuaren
ohitura oso zabaldua dago.
Erramu hau Berpizkunde Paskuan
bedeinkatzen da eta zoluan
ipintzen da genero ona lortzeko**



Kafe hauek denak...
**FREXKOAK
XIGORTU BERRIAK
XUABEAK.....dira**

Egunero herriz-herrri banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.



BAQUE KAFE
XUABEA

Antikutzara itera

Bidaia honi esker Antikutza nolako den azaltzen ahaleginduko gara. Bertan bi egun igaro ditugu. Ikasteaz aparte ondo para dugu. Bergarako Ospintza Institutuko DBIkko 3. mailako talde bat joan ginen bertara. Lehenengo egunean hainbat kilometro egin genituen.

Bertako pagadi eta

pinudietatik ibili ginen. Begiraleek zuhaitzak sailkatzen erakutsi ziguten eta han zuden zuhaitz mota gehienak sailkatu genituen. Arratsaldean berriez gure aterpetxe inguruan zuden zuhaitzak plano batean kokatu genituen.

Ondoren estazio meteorologikora joan ginen eta

egin zuen euri kopurua neurtu genituen.

Gero herri-erria jeitsi ginen. herria ez da oso handia, hiru etxebizitza besterik ez ditu, eta hamabost bat lagun bizi dira, herri erdian errika bat dago kokaturik eta bertako urak ez du klororik eta nahiko garbia da. Etxeaz gain beste eraikuntza batzuk ere badaude, hauekiko bat "Bonberos-a" da.

Herriko bideska batek utegi bateraino eramane genituen, bertan utegiari buruz hitz egin ziguten eta ilundu baino lehen aterpetxera buelta.

Arzkeberako egun hura



Antikutzako pagadi eta pinudietatik

urkatutik amaitu

genuen.

Hurrengo egunean estazio meteorologikora jeitsi ginen, hango datuak hartzerako.

Ondoren herri-erria jeitsi ginen eta herrietik zehar bide bat hartuz.

Mendikutera joan ginen, han zuhaitzen datuak hartu genituen (altuera, zabalera....) Ondoren aterpetxera joan ginen eta horelaxe amaitu zen gure Antikutzako bidaia.

DBIkko 3. mailakoak



Aterpetxe hartzen egun ginen Antikutzean pasatako bi egunetan.

han temperatura hartu, haizearen abiadura neurtu eta

HAIZEA
TABERNA


giro atsegina lagunartean egoteko.
Tel: 768256

Jesus Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.
Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

KOKOZKO TARTA

Sukaldaria: Iratxe Belar
(Elgetako Gazte Asanblada)



NOLA PRESTATU:

Orea egiteko: urunarekin sumendi bat egin, barrura azukre hautsa, gurina eta arraultza oso bat bota. Oretu eta denbora tarte baten laga:

Betegaria egiteko: ontzi batean, kokoa eta uruna nahastu. Ondoren, azukarra, uruna eta gurina gehitu. Su baxuan jarri gurina eta azukarra urtu artean. Ondo-ondo nahastu eta piskatean itxoin.

Moldea gurinarekin eta urunarekin gantzutu. Orea mehe-mehe zabaldu eta beste nahastea gaineratu. 150/160 gradutan labera sartu, 20 minututan eduki gogortu arte.

Gainetik azukar hautsa edo kokoa bota nahi izanez gero.

OSAGAIK:

- 200 gr.koko birrindua
- 370 gr. azukarra
- 50/100 gr. uruna
- 40 gr.gurina
- 6 arraultza
- Gorringo bat


OREA EGITEKO OSAGAIK:

- Kg.1/2 uruna
- 150 gr. azukar hautsa
- 300 gr. gurina
- Arraultza bat
- Gatza



Gomendioa:

- Orea mehe-mehe zabaldutakoan, minutu batzutan laboratzea komeni da ez dadin gordirik gelditu.
- Ikutu eta gogorra egonez gero nabarituko da tarta eginda dagoela.





Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

4 t'erdiko txapelketa Garaipen bat eta bi porrot

Peñalverrek garaipen erraza lortu zuen bitartean Barrigonek eta Ormaetxeak agur esan diote txapelketari

4 t'erdiko txapelketa mar-txan da dagoeneko. Urtero bezala kadete eta afizionatu mailako pilotaririk onenak ikusteko aukera izango dugu, txapelketa honen mailaren adierazgarri.

Dagoeneko Elgetako hiru pilotarik jokatu

dute beraien lehenengo kanporaketa eta ezin esan gauzak ondo hasi direnik. Peñalverrek erraz irabazi zuen bitartean Mikel Ormaetxeak eta Eduardo Barrigonek ezin izan zuten lehenengo kanporaketa gainditu.

Aurten 15 urte beteko dituen Ormaetxeak ezin izan zuen 4 t'erdiko barruan jokatzeko lehenengo partiduan garaipenik lortu. Aurrez-aurre Oñatiko Roma-zatezabala izan zuen eta txantxikuar-rrak 18 eta 14 irabazi zion. Barrigonek, Belategi arrasatearren aurka neur-tu zituen indar-rak. Partidu osoan zehar markagailuan aurretik joan ondoren, honek ere, ezin izan zuen garaipenik lortu markagailuak 21nako berdinketa adieraz-

ten zuenean sakez falta egin bai-tzuen. Benetan penagarria.

Peñalverren "show"-a

Bere norgehiagoka irabazi zuen elgetar bakarra David Peñalver izan zen eta nola gainera. Gerriko urdinez jokatu zuen Peñalverrek ikuskizun handia eskaini zien frontoira hurbildu ziren ikusleei. 13 tanto eginak zituen Davidek Lazkanok aurreneko lortu zuenerako. Ordurako Peñalver bere saltsan ari zen saiatutako jokaldi guztiak ondo atera baitzitzaizkion. Aipaga-riak benetan gantxo-z lortutako hirurak. Partidua 22 eta 9ko emaitza amaitu zen.

Arantzetaren garaipena Euskal Ligan

Eñaut Arantzetak Euskal Ligako junior mailako txapelketa lortu zuen Gutierrez bikote zuela, finalean. Varela eta Erauzkin lemoarrei 22 eta 10 irabazi zieten. Bergarako taldea ordezkatzeko jokatu du Eñautek torneo hau.

Hiru talde gipuzkoako bolo txapelketan

Hiru talde dira Gipuzkoako bolo txapelketan gure ordezkariak. Bi Elgetaren izenpean dabiltzanak eta hirugarren bat Zabaleta ordezkatzuz. Ezin esan gaizki dabiltzanik. 8 taldek hartzen dute parte txapelketa honetan eta pu ntuaketa taldekakoa zein banakakoa da. Hiru ihardunaldi jokatu direnean goiko pus-tuetan dabilta gure ordezkariak.

Saskibaloikoek garaipen garrantzitsua

Garrantzitsua bai, elgetarrek lortu zuten garaipena. Lau puntuz izan bazen ere, sailkapen nagusian beraiekin lehen postuan berdindurik zegoen taldeetako bati nagusitu zitzairen. Orain bi talde gertzen dira sailkapen-buru, iazko irabazleak eta elgetarrak.



Mikel Ormaetxeak aurten jokatu du lehenengo aldiz 4 t'erdiko txapelketan




IRAMA

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262
tel: 789057-768025

Instalazioak eta mantentze lanak

ANA LIBURUDENDA



Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

Elgetar txirrindularien lehen pedalkadak

Bai Oskar Askasibarrek eta bai Xabier Arangurenekin diote autengo txirrindularitza denboraldiari. Oskarrek, Laudion egin zuen debuta, 12. iritsiz esprintean erabaki zen lasterketan. Hurrengo asteburuan Santander aldean korritu zituen bi lasterketa, eta zapatuko lasterketan arazo mekanikoak di-rela medio lasterketa bertan bera utzi behar izan zuen arren, domekan 7. postua eskuratu zuen mal-dan gora amaitzen zen laisterketan.

Parte hartu zuen azken lasterketako bat Gorlara igoera izan zen. Oskarrek esperantza han-

diak zituen jarrita lasterketa honetan, iaz baino motibatuagoa zegoela adierazi zigun, baina ez zen batere gustora geratu egindako lasterketarekin. Irabazlearengandik 1'50" tara iritsi zen 22'23"ko denbora eginenez (22.a 88tik). Iaz, eta lasterketa berean 22 minutuko denbora egin zuen.

Bestalde Xabierrek bere hirugarren denboraldia beteko du Bergarako Lokatza txirrindularitza eskolan. Aurten 2. urteko kadetea da eta SUMOFIC taldean arituko da 15 urteko elgetar txirrindularia. Estraineko lasterketa Beasainen izan zuen 23. postuan iritsi zen helmugara.

Hurrengo asteburuan ere Goierrri aldean, Lazkaon, korritu zuen. Kasu honetan 35 lehenengotan sartu zen. Aipatzekoa, bere tal-

dekide den Gabilondok lorturiko 2. postua.



Oskar eta Xabierrek ekin diote denboraldiari

(Xabier M.) Alferrak taldeko jokalaria

-Noiztik txapelketan parte hartzen?

Duela hiru urtetatik, lehenago URIENekin jokatu izan dut.

-Ze taldek irabaziko du aurten txapelketa?

Niretzat faborittoa TXAPELA da.

-Zer moduzko antolaketa ikusten duzu txapelketan?

Dirurik ordaintzen ez dugula kontutan izanda ondo dagoela esango nuke.

-Bi jokalariren arteko liskar baten aurrean zer egin?

Partidu batzuk jokatzeko uztearekin nahikoa izango zela uste dut, ez dut uste bestelako zigorrik beharko zenik.

-Partiduen ordutegiarekin ados al zaude?

Bai oso ondo, ordu aproposak dira.



ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

AZKUNETA

(Arezkurenaga)

Ermita: San Martin de Tours

Jaia: Azaroaren 11n.

San Martin egunetik hurren gelditzen den zapatuan ospatu dute azken urtetan jai eguna. Urtetan oso ahulduta egon den jaia izan arren berriz ere indartu da azken hiru urteotan.

Eguerdian meza egoten da eta ondoren erromeria soinu-joleekin eta gonbidapena etorritako guztientzat.

Orain dela gutxirarte maiordomo aldaketa hurrengo domekan egingen zuten: urteko kontuak garbitu eta ondoren baba zuri jana egingen zuten.

Baserriak eta etxeak:

- Migelena (Arezkurenaga suso)
- Berrandona (bi bizitzaduna)
 - Pagaldai
 - Gaztelu

- Aldekona
- Frantzina (Jaunzuriena)
- Elizalde (bi bizitzaduna)
 - Retolaza
 - Alustiza

- Errotia (Errotiaga) hutsik
- Elizaldebarri
- Askasibar-enea (Migelenako etxe berria)
- Frantzinabarri

Berrandona

Bi bizitzako etxe "klasi-koa", ataritik etxe bietarako sarrerak banatzen direlarik era simetrikotan, erdian medialineak banatuz bi aldeak. Baserri gutxitan bezala bizilekua etxaurre-ra begira dago antolatuta bi bizitzetan, hegoaldera egon beharko liritekeen leihoak geroz egindako txabolak estaltzen dituelarik.

Auzoko ohitura jarraitzen du etxe honek jabearen izenetik, kasu honetan abizenetik, eratorriz etxearen izena, hau da, Berraondotik Berraondoena.

Pagaldai eta Gaztelutarrak izan dira Berrandonan bizi izan diren familiak mende honetan. Pagaldaitarrak, Azkunetan aspaldikoenetarik familia dira, asko mende honen hasieran etorriak baitira. Hau da Gaztelu familiaren kasua: Uberako Erguizartik etorri ziren Berrandonara 1912an, Aldekona eta Frantzinako familien garai berean.

Gaur egun Pagaldaitarrak bertan jarraitzen badute ere beste etxea, Gaztelutarrena, salgai dago.



Berrandona baserria

Elizalde

Bi bizitzako etxea da Elizalde eta San Martin elizarekiko duen kokapenetik datorriko izena. Retolatza eta Alustizatarrak dira bertako bi familiak.

Bi bizitzako etxe askok ataria bien artean edukitzen dute, baina Elizalderen kasuan bi bizitzako etxea baino bi bizitza elkarri itsatsitakoa dela esanda hobeto deskribatzen da bere banaketa, hau da, gaur egun "adosados" deitzen den horietakoa. Izan ere, begirada baten,

baserri handi bat dirudiena simetrikoki banatuta dago alde batera eta bestera, etxe bakoitzak bere sarrera daukal, bai etxerako bai kortarako. Baliteke garai baten bizitza batekoa izatea, Alustizatarran aldean egongo litzatekelarik etxebizitza eta beste aldean kortak, kontutan izanik gainera alde honek, hegoaldera jotzen duenak, Angiozarko beste baserriean ezaugarri guztiak betetzen dituela barruko banaketari dagokionez. Barruan dauken harlanduzko ateez ere horren froga izan daitezke.

Bestalde, Retolatzen aldean beste atal bat du gehituta etxeak, etxekonekoak ez bezala, etxaurre-ra leiho guztiak ateratzera behartuta baitzeuden, eta etxea albo-rantz haundituta aurkitu zuten konponbidea. Zati hau mende honen hasieran etxea erre egin zela eta aprobetxatu zuten egiteko.

Retolatzen aldean etxea aspalditxo erosi zuten, oraingo etxeak jaun den Marianoren aitxajau-nak erosi baitzuen. Gaur egun Mariano eta Paulina, seme Jose Luisekin bizi di-

ra.

Alderantziz, Alustizatarrak duela gutxirate izan ditugu errentero, etxea Sebastian Alustizak, etxeko seme gazteenak erosi zuen arte. Aurreko ugazabak Bergrako Ugabidekoak ziran.

Bertan ez da inor bizi Antonio Alustiza eta bere emazte Antoni Elizaldebarri bizi zirenetik, asteburuetakoko egoitza bihurtu delarik. Aipatu behar da oso poliki berriztuta dagoela etxea bai barrutik eta bai kanpotik. Etxe honetakoa zen Teodoro Gaztelu, Beheko Tabernakoa, guztiontzat eza-guna, hil berri den Mutrikuko Kondearen txoferra izandakoa.

Teodororen aita izan zen Paulino Gazteluk jaso zuen ondoren aipatu-dugun etxea.

Elizalde-barri

Paulino gazteluk jaso zuen gaur egun Elizaldebarri izenarekin ezagutzen dugun etxea, hasiera baten garia joteko makinak egiteko tailer moduan. Orain

etxe bizitza dagoen pisuan zeukan bere tailerra Paulinok, baserriko lanak gutxitzean triladorak egiten zituelarik. Bere lana makinok muntatzea zen: Alemaniatik ekartzen zituen motorrak, beste lekuetatik behar ziren piezak eta azkenik makina muntatua orain balkoia dagoen tokitik ateratzen zuten kargatu eta eramateko.

Gaur egun arrigarrria dirudi garai baten Angiozarren gariaren inguruko industriak halako indarra edukitzea, hau ez baitzen horretara emandako tailer bakarra: kalean beste bi zeuden, hauek garia garbitzeko makinak egiten zituztenak: Inzarena eta Gallastegirena. Makina hauek oraindik martxan jarraitzen dute hainbat baserrietan aberiarik barik, garantiak aspaldi kadukatura egon arren.

Duela berrogeitamurte tailerra etxe bihurtu eta Paulino eta bere emazte Guillerma horra pasatu ziren bizitzera, hil ziren arte. Harrezkero Santos Bermejo (musikua) eta bere familia bizi izan ziren



Elizalde baserria.

1960. hamarkadan eta urte dexente hutsik egon ondoren Antonio eta Antoni pasatu ziren Elizaldetik hona bizitzera.

Elizaldebarrik badu etxaburuan beste etxe txikitxo bat, lehen begiradan bereiztu ezin daitekena, han bizi izan ziren Jaso-Castelo familia. Mariano Jaso "Baltierra", bere ehiza azañen kontalari bikaina. Oraindik gogoan dituztenak bere "tiro corrido"ak eta erreka ondoko solotan behi kamuflatuta

ehizan egin zuenekoak.

Errotia

Aspaldi errota izanetik dator kio etxeari izena, baina errota izate hori noiz izan zen ez dugu arraztorik, ez eta uraren energia nondik hartzen zuen ere. Ezin daiteke antzeman ez presa non zegoen ezta kanala ere. Beharbada orain Hiruauzo errotarako ponporta bera izango zen garai baten Errotiarako balio zuela, kanal etxearen aldetik ekarriz. Baina etxe honen inguruan egurrezko gurgil haundi batzurekin erreka-ko uraren mugimendua energia elektriko bihurtzeko zentrala egon izanaren oroitzapenak Errotiako makinariaren sistemarako beste hipotesi bide batzuek ere zabaltzen ditu, hau da alboko gurgil bertikalak mugitutako errota izatea, gauza harrigarria inguru hauetan.

Baserri etxe bihurtuta, Errota izandako etxe askok bezala, aurrean beste atal bat du eraikia, goiko pisuarekin, etxe bizitzarako balio zezan, aurrez errota izandakoa korta bihurtuz.



Elizaldebarri, goian Askasibarrenean.



ZIRT: Jendia ona kotileatza etortzen da.

ZART: Gaztetxia herrira zabalik dagon lokala da.

ZIRT: Gaztia ez danai, arda bat be ez notzake etarako.

ZART: Hau lokalau ez da gaztiena bakarrik.

ZIRT: Ekintzak gaztientzako ta gaztetxian egiñ bihar dira.

ZART: Ekintzak danondako, herri guztian... adierazpen askatasuna, geure politikia...

Oiñ dala hile batzuk asanblada bat egiñ zan gaztetxiak aurrera begira eruan bihar daben bidia pentsatzeko. Kalera etara ziran kartelak zeresan haundixa euki eben: Kriston zorrak egiñ ei dittue! Drogi dala ta ertzaiñak bota aurretik, ixtia nahi dabe! Nik mosu zurixakin ikusi neban bat jeringilia eskuan ekala! Porrue besteik ez da erretzen! Hor egoten diran danak drogadituak dira!

Urteurrenien danok pozik

Martxoko hillabetian

ZIRT ta ZART!Gaztetxia bihar da?

ekintza asko egiñ dira gaztetxia okupau zanetik bi urte betetzen dirala ta. Gaztetxian, frontoian, gimnasiun... herriko kaletan jende asko ibilli da poz-pozik. Jente gehixenak urteurrena juega moduan hartu dau. Ta hori ondo dago baiña, ez da egiñ biharreko dan bakarra. Badia bi urte atia botatzia pentsau giñuanetik! Bi urte ikastaruak, kontzertuak, diapositiba emanaldixak, hitzaldi-

ta be jentiak, bai gazte ta bai nausixauek, nahixau dabe telebisiñua ikusi edo ondoko herrira juatia juegara... Herrixan bertan hitzaldi bat, talde ezezagun baten kontzertua... ikusi edo entzutia baiño. Errezena da, urteurrenien, karnabaletan...urtian hiru bidar, Gaztetxetik pasau ta esatia urtetik urtera hobera doiala, edo kriston martxia egoten dala.

Hala ta be tran-kil! Beti egongo da herriko txorimalon bat borondate onakin gauzak aurrera eruateko, ez diruagaittik beste batzuk moduan. Benetako interesak, ekintzak aurrera eruatia ekartzen dau, ta danok dakauz, ezta? Bakotxan interesak danondako proiektu bihurtzeko da Gaztetxia.

Hurrengo urteurrenien, karnabaletan, sargardo egunian... fan gaztetxera ta pasau ondo. Baiña hitzaldi diapositiba, kontzertu... ekintza ezberdinetara ez fan, horretara herriko pringauenak faten dira. Gainera, hara sartuta mosu txarrakin begiratzen zaittue.

GAZTETXIA!

GAZTETXIA! Hori hitzoi dago jende askon ahuan: batzuk, beragaittik gaizki esaka ibiltzeko; beste askok, Getto bat bihurtzeko.

Ipuiña ipuiña da. Txapadia txapadia. Ni zuen moduan ondoko herrira noia talde famosilluan kontzertuoi entzuzera. Elgetan ez da ezer egoten! Nik zuen moduan GUAY izatia nahi dot baiña, horretarako EZ dot gura GAZTETXEIK.

Oxel Erostarbe Tubilla

Urtian pare bat bidar bakotxa bere mundutik bajau ta danok batera zeoze egittia ez legoke txarto.

xak... Asentzio eguna, sargardo ta tortila jan-erana, karnabalak... ping-ponga, futbolina, pelotia... Bete dira bi urte, lau paret hotz herriko kulturgune garrantzitsuena diranetik. Ta ez gazte ta ez nausixau askok ez dabe hau onartu nahi. Hau lokalau danona dala be ez dira oiñdio konturatu (jubilauena, solteruena, ezkonduena, umiena, gay ta lesbianaena, gaixuena, porruena, fantasmaena... nahiz ta normalian gaztiak egon). Elgetar askok esaten dabe hau herrixau hilda dago-la, gehixenbat be gaztiak. Ta hori ez da egixa. Hala

Dirua ez dan aportaziñua

Proiektuak badare herrixan. Gaztetxia dagon lekuan be egiño dabe noizbaitx polikiroldegiko 3. fasia. Proiektuak egittia beti da inportantia... baiña hasitta darenak bultzatu ta laguntzia beti da garrantzitsuaua. Bihar izaten dan laguntzia ez da beti ekonomikua. Askotan, eritzi batek, elkarlanak, animuek, gehixau laguntzen dabe, diruak baiño. Urtian pare bat bidar, bakotxa bere mundutik bajau ta danok batera zeoze egittia ez legoke txarto.


Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.

Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009



Argazkia: Juan Mari Azkarate

Beletia dabillen moduan ibiltzian kulpa haundixa daka honek kuadrillionek



Beletian moduan, bueltaka, eta ez buelta gutxi emonda igo zan gaur mendi puntan ikusi leiken beletia. Kamioiak be goraiño igo eban. Gallastegin kamioia dalakuan gare grua ta guzti Intxorta puntan ikusi geinken kamioia. Edade guztittako jentia dago erretratuan. Luzatu baiño lehen izenak emotia izango da onena.

Aurreko hillaran makurtuta darenak: **Juan Markiegi, Luis Altzuaran, Antonio Basauri, Lazaro Egizabal eta Jose Luis Irazabal.**

Bigarren hillaran: **Felix Irazuegi, Txomin Retolatza, Jose Arantzabal, Julio Ibarluzea eta Luis Atorrasagasti.**

Gorengiak: **Juan Andres Aretxaga, Iñaxio Elorriaga, Patxi Larrañaga, Bixente Pelaez, Justo Bolinaga, Juan M^a Azkarate, Ana Gillegi, Jon Irazuegi eta Iñaki Gillegi.**

Ibargarai, 11-13
BERGARA
Tel - Faxes: 767058




MODELO BERRIAK
Kalitate hobea preziorik onenean!



OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU

Hemen gara!

Todo terreno CRV



HONDA

Prelude



ACCORD



CIVIC 3 ate



CIVIC 5 ate

MENDIOLA

Araba etorbidea, z/g. ARRASATE
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 771625
Mekanika eta Karrozeria: Tel.: 797564

